

HAUR ETA GAZTEEN AISIALDIRAKO BEGIRALE IKASTAROA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. AISIOLAREN ZEREGINA	2
3. IKUSMIRA	2
4. BALIOAK	3
5. IKASTAROAREN ANTOLAKETA ETA EGITURA	4
6. IKASTAROAREN ZATI TEORIKOA:	5
7. IKASTAROAREN ZATI PRAKTIKOA	6
8. METODOLOGIA TEKNIKAK ETA PEDAGOGIA BALIABIDEAK	8
9. EBALUAZIO SISTEMA	9
10. FORMATZAILEA	13
11. EGUTEGIA	12
12. AURREKONTUA	13
13. TALDEA ATERATZEKO RATIO MINIMOA	13

1. SARRERA

Jarraian aurkezten den txostenean, Aisiola Hezitzaile Eskola ezagutu ahal izateko informazioa jasotzen da. Aisiola, Zirimola Ikastolen Aisialdi Taldearen barruan kokatzen den proiektua da. 2001az geroztik hezkuntza ez formaleko formakuntzaz arduratzen da, gehien bat Hezitzaile eta Zuzendari ikastaroetaz. Ordutik, asko izan dira gure eskolatik pasa diren ikasleak, eta horietako gehienek hezitzaile edo zuzendari gisa lan egiteko aukera izan dute. 2023-24 ikasturtean 590 ikasle izan ditugu Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako 54 talde ezberdinetan banatuta.

Ikastaroaren bidez, ikasleek honako ziurtagiri homologatu eta ofizialak eskuratuko dituzte:

- Lanbideko “Haurren eta gazteen aisialdiko jardueren dinamizazioa” ziurtagiri profesionala.
- Eusko Jaurlaritzako “Haur eta gazteen aisialdirako begirale diploma”.
- Nafarroako Gazteriaren Institutuko “Haur eta gazteen aisialdirako begirale diploma”.

Behin kokapen orokor bat eginda, txosten honetan Aisiolaren eta Hezitzaile ikastaroaren inguruko informazio jasoko da. Lehenengo atalean, Aisiolaren zeregina, ikusmira eta balioak azaltzen dira. Ondoren, ikastaroaren egitura, eduki eta ebaluazioaren inguruko azalpenak adieraziko dira. Amaitzeko, ikastaroaren egutegia agertzen da.

2. AIKIOLAREN ZEREGINA

AIKIOLA Euskal Herriko Ikastolen elkartearen hezkuntza ez formaleko eskola da, arlo honetan Euskal Herrian erreferentea. AIKIOLA euskal izaera duen elkarte da, hezkuntza ez formalaren bidez haur eta gazteentzako aisia hezitzailea sustatzeko lanean diharduena, euskara eta euskal kulturarekiko konpromisoa landuz eta ikuspegi ekosoziala lanerako ardatz duena.

Halaber, etengabeko hobekuntzarako bide den ISO 9001 kalitate ziurtagiriak ezarritako eskakizunak betetzeko konpromiso sendoa duen erakundea da.

3. IKUSMIRA

AIKIOLAK euskara, gizartea eta ingurugiroarekiko errespetua funtsezko balioak direla ulertuta, jolasa nahiz sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat hartuz, hezkuntzaren eremu ez-formalari eta informalari zuzendutako kalitatezko prestakuntza euskalduna eskaintzen du.

Gure ikasleek etorkizunean lan-munduan erantzunkizunez, autonomiaz eta arduraz jarduteko gaitasuna lortzeko egiten du lan.

Horretarako ondo prestatutako formatzaileak ditu, eduki berritzaile eta garaikideekin, metodologia dinamikoekin eta baliabide anitz bezain aberatsekin lan egiten dutenak.

4. **BALIOAK**

Hezkuntzen paradigmez, arloez, edo eremuez hitz egitean, horiek hiru esparrutan ezberdinu ohi dira: hezkuntza formala, ez-formala eta informala. Hezkuntza formala administrazioak curriculumarekin arautzen duen hezkuntza gisa ulertzen da. Hezkuntza ez-formala, aldiz, sistematikoki, helburu hezitzaileekin eta modu antolatuan ikaskuntza eta bizipenak errazteko bideratzen den hezkuntza-prozesu gisa. Eta hezkuntza informala, hezkuntza-sistema araututik eta hezkuntza ez-formalaren ekintzetatik harago doan hezkuntza-prozesutzat (Guirado eta Rua, 2023).

Hala, definizio horietatik abiatuta, Aisiola ikastolen hezkuntza ez-formala bideratzen duen eskola dela esan dezakegu, bere jarduna zuzentzeko honako **balio etiko hauek** une oro ardatz dituenak: **profesionala izatea, euskalduna izatea, ingurunearekin konprometitua izatea, eta, halaber, ikuspegi komunitarioa** duena.

Aisiola eskolan ikastolen ikuspegitik nolako aisialdia nahi den definitzen da eta, hortik abiatuta, **xedea da Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorrean zehazten den pertsona ereduari¹ ekarpena egitea**. Hala, markoan jasotzen den gisan Aisiolako ikasleei prestakuntza integral osoa eskaintzeko konpromisoa dugu. Jakin badakigu eguneroko bizitzan pertsonaren izaera indartzen duten konpetentzia metadiziplinarrak behar direla, hau da, zeharkakotasunez diziplina ezberdinetan aritzeko balio dutenak. Modu horretan, gure identitatearekin bat datozen eta etorkizuneko erronkei heltzeko gaitasuna izango duten pertsonak garatzen laguntzea da Aisiola eskolaren helburua.

Bada, ikastolatako hezkuntza ez-formala bideratzen duen eskola gisa, HMOean jasotze den honako ezaugarriak dituen pertsona-eredua partekatzen ditu (Antero et al., 2023, 61. or):

1. Taula: HMOeko pertsona-ereduaren ezaugarriak.

Euskalduna	Barne-sendotasuna duena	Eraikitzaile-ekintzailea	Eraldatzailea	Kooperatiboa
------------	-------------------------	--------------------------	---------------	--------------

Iturria: Ikastolen HMO (Antero et al., 2023). Norberak egina.

Alabaina, bost ezaugarrietan ekarpena egiteko formakuntza-saioen garapen pedagogikoa prestatzen bada ere, Aisiolak, azpimarra eta **ekarpen nagusia honako bi ezaugarri hauetan** egin nahi du: **ezaugarri euskaldunean eta kooperatiboan**. Ezinbesteko ezaugarriak dira Zirimola Ikastolen aisialdi taldeko egitasmoetan, zeinetara Aisiolak hezitzaileak bideratzen dituen. Bertan egikaritzen direnak euskaraz eta euskaratik ardatzen diren egonaldiak, udalekuak, soziolinguistika proiektuak eta ikerketak dira.

¹ HMO (Antero et al. 61. or)

5. IKASTAROAREN ANTOLAKETA ETA EGITURA

Prestakuntza moduluei dagokionez, Haur eta gazteen aisialdirako hezkuntza jardueretarako begiralearen profilari lotutako prestakuntza modu dinamikoan eta ikasleek hezkuntza-prozesuan eraginkortasunez parte hartuta emango da, eta ondorengo moduluak barne hartuko ditu, ezartzen den ordutegi-esleipenaren arabera, genero-ikuspegia txertatzea eta hizkuntza normalkuntzaren gaia aintzat harturik:

- Haur eta gazteen aisialdirako hezkuntza-jarduerak (60 ordu).
- Talde eta hezkuntza-prozesuak haur eta gazteen aisialdian (30 ordu).
- Animazioko teknikak eta baliabideak aisialdiko jardueretan (60 ordu).
- Haur eta gazteen aisialdiko jarduerak dinamizatzeko lanbide-praktika ez laboralen modulua (160 ordu).

Guzti hau kontuan izanda, begirale ikastarorako Aisiolatik egiten den edukien inguruko proposamena hurrengoak litzateke:

HAURRENTZAKO eta GAZTEENTZAKO HEZKUNTZA-AISIALDIKO JARDUERAK DINAMIZATZEA					
Haurren eta gazteen aisialdiko jarduerak antolatzea, dinamizatzea eta ebaluatzea. (60h.)		Talde-prozesuetan jardutea, hartzaroaren eta gaztaroaren portaera eta eboluzio ezaugarriak aintzat hartuta. (30h.)		Aisialdiko animazioko hezkuntza-teknikak eta baliabideak erabiltzea. (60h.)	
AISIALDI EREDUA	15h	INKLUSIBITATEA	10h	LEHEN SOROSPENAK	10h
GARAPENA	20h			JOLAS-JOKOAK	10h
KONTZIENTZIA PEDAGOGIKOA	5h.	PAREKIDETASUNA	10h	EUSKARA - AHOZKOTASUNA	5h.
EUSKARA eta KOMUNITATEA	5h.			AUZOLANA	5h.
PROGRAMAZIOA	10h			ADIERAZPENA	10h
EBALUAZIOA	5h.	ETNOMOTRIZITATEA	10h	SORMENA	10h
				NATURA	10h

6. IKASTAROAREN ZATI TEORIKOA:

AISIOLAtik modulu bakoitzarentzako prestatutako edukien garapena hurrengoa izango da:

1. **MODULUA:** Haur eta gazteen aisialdiko jarduerak antolatzea, dinamizatzea eta ebaluatzea.
 - Aisialdi eredua
 - Senak eta emozioak
 - Jolasetik jokora
 - Ludikotasuna eta ziurgabetasuna
 - Mugimenduaren alfabetizazioa
 - Kontzientzia pedagogikoa
 - Euskara eta Komunitatea
 - Programazioa
2. **MODULUA:** Talde prozesuetan jardutea, haurtzaro eta gaztaroaren portaera eta eboluzio ezaugarriak aintzat hartuta.
 - Inklusioa
 - Feminismoa
 - Etnomotrizitatea
 - Kulturartekotasuna
3. **MODULUA:** Aisialdiko animazioko hezkuntza teknikak eta baliabideak erabiltzea.
 - Lehen Sorospenak
 - Haurren basoa
 - Haurren hiria
 - Euskal jaialdi ereduak
 - Auzolana vs jaialdiak
 - Legedia
 - Egonaldia aterpetxean
 - Sormena

Modulu bakoitzaren azken saioan, ikasleek emandako edukien inguruko azterketa bat egin beharko dute. Azterketak bi zati izango ditu. Lehenengoa “test” motakoa izango da eta ikasleek 20 galderari erantzun beharko diete. Bigarrena berriz, hausnarketa idatzi bat izango da, ikasleei egoera bat planteatuko zaie eta egoera horri aurre egin beharko diote.

7. IKASTAROAREN ZATI PRAKTIKOA

Aipatutako formazioaz gain, begirale titulua lortzeko 160 orduko praktikak egin behar dira gutxienez 16 eguneko iraupena duten aisialdiko ekimenetan (udalekuetan, kanpamentuetan...).

Beti ere, baldintza hauek bete behar dira praktikak egiterakoan:

- Praktikak, arlo teorikoa bukatu eta 3 hilabeteko epean egiten hasi behar dute.
- Praktikaldiaren tutorea, Aisialdiko zuzendari titulua duen pertsona bat izango da.
- Eskolak, praktiken jarraipena egingo du praktiken arduradunarekin koordinatuta.
- Praktikaldia bukatzean, praktiken arduradunak edo hala badagokio, eskolako ikuskatzaileak ikaslea ebaluatuko du *Gai* edo *Ez Gai* kalifikatuz.
- Praktikaldia bukatzean, Praktiken inguruko memoria bat egin behar du ikasleak.
- Praktikak kanpo elkarte batekin egiteko aukera dago. Horrelako kasuetan, aurretiazko puntuak Aisiola eta kanpo elkartearen artean antolatuko dira.

Praktiketan sartutako denbora neurtzeko bi modu ezberdin daude udalekuaren arabera:

- Udaleku itxiak: ikasleak udalekutan lo egiten badu, egun bakoitzeko 10 ordu zenbatuko dira (adibidez, 7 eguneko udaleku bati 70 ordu dagozkio)
- Udaleku irekiak: umeak etxera itzultzen diren udalekuetan, orduak zenbatuko dira (adibidez: udalekuaren ordutegia 9.00 – 13.00 bada, 4 ordu zenbateko dira).
- Ikasturtean zehar: udaleku irekien modura zenbatzen dira orduak.

Praktiketako orduak zenbatzeko, kontuan izan behar da ikasleak proiektu guztian sartu duen denbora, hau da, ekintza aurretik formazio eta prestaketa lanetan egindakoa, eta ekintza amaitu ondoren desmontaian eta ebaluazio lanetan sartutakoa. Adibidez, udaleku itxiak 7 egunekoak badira, eta prestaketetan sartutako orduak 20 badira, guztira 90 ordu aterako lirake ((7x10)+20=90)

Praktikak irauten duten bitartean, ikasle guztiek istripu eta erantzun zibileko aseguruak izango dituzte.

8. METODOLOGIA TEKNIKAK ETA PEDAGOGIA BALIABIDEAK

Hezitzaile Ikastaroaren saioak modu presentzian burutuko dira eta ikastaroan zehar erabiliko diren metodologia teknikak eta baliabide pedagogikoak hurrengoak izango dira:

- Hezkuntza aktiboa
- Motibazioa
 - Bizipen sistematikoa.
 - Esperientziatik ikasi.
 - Ekintza-hausnarketa-ekintza
 - Jolasa
- Talde lanak
- Harreman interpersonalak: ezagupena eta elkarbizitza.
 - Egonaldia
 - Hezitzaile talde iraunkorra.
- Azterketa eta hausnarketa:
 - Ikastaro guztia da hezkuntza.
 - Norbere bizipenetan oinarritutako hausnarketak
- Banakako lanak
 - Norbanakoaren hausnarketa.
 - Eduki zehatzen lanketa.
- Modulu ezberdinetako edukiak barneratu direla bermatzeko, eduki horien transferitzea eskatzen duen “egoera” bat ebatzi.
- Heziketa prozesuko arduradunen eta hezitzaileen arteko koordinazioa.

9. EBALUAZIO SISTEMA

Ikastaroan zehar, modulu bakoitzean bi ebaluazio mota erabiliko ditugu: ebaluazio jarraia eta amaierako ebaluazioa. Ebaluazio jarraian saioetan bertan egiten diren talde dinamikak ebaluatuko dira, honek amaierako kalifikazioaren % 30 hartuko du. Amaierako ebaluazioan berriz, lehen aipatu moduan, test ariketa bat eta hausnarketa idatzi bat egin beharko dituzte ikasleek. Test ariketak amaierako kalifikazioaren %20 hartuko du eta hausnarketa idatziak berriz % 50.

Hona hemen ebaluaziorako erabiliko diren jarduerak:

MODULUA	1. MODULUA (1866)					
Kalifikazioa	Bukaerako kalifikazioaren %30				Bukaerako kalifikazioaren %20	Bukaerako kalifikazioaren %50
	E1	E2	E3	E4	Azterketa teorikoa	Azterketa teoriko-praktikoa
JARDUERA	“Adin tarte bakoitzari”	“Mugimenduaren alfabetizazioa”	“Ekintza proposamenak”	“Udaleku parte-hartzaileen aurkezpena”	Testa	Hausnarketa idatzia
AZALPENA	Jarraian, 3 taldetan banatuko dira ikasleak, eta adin tarte konkretu bateko edo adin tarte ezberdinetako haurrentzat udaleku batzuetako egun baterako (egun osoa, goiz bat, arratsalde bat, goizeko zati bat,...) proposamena sortu beharko dute. Ondoren, beste taldeetako kideei aurkeztuko diete ahoz	Bakoitzak bere ustez Mugimenduaren Alfabetizazioa oinarritzat hartzen duen hezitzailearen izaera definitu lituzkeen 5 gaitasun edo ezaugarri jasoko lituzke. Jarraian arbelean, hezitzaileak esku handi bat marraztu eta hezitzailearen rola definitzen dituzten ezaugarriak zeintzuk diren zehaztuko ditu. Bukatzeko, hezitzaileak gainetik aipatuko ditu lantzen diren gaitasunak, zein ezaugarri dauzkan eta zein helburu.	3 taldetan (udaleku irekiak-udaleku itxiak eta udaleku ibiltariak) banatuko ditugu ikasleak. Talde bakoitzak adibide txiki bat izango du eskura. Hau izanik, euren egitekoa udaleku baten programazio bat garatzea izango da, zehaztapen maila sakonik gabe. 4 atal barne bildu beharko ditu: Kokapena - Prestaketa – Ekintzen garapena - Ebaluazioa	Taldeka aurkeztuko dituzte sorturiko programazioak eta besteek, euren ekarpenak egiteko aukera izango dute aurkezpenaren amaieran.	1866 moduluan (haurren eta gazteen aisialdiko jarduerak) landutako edukien arabera	Nolako aisialdi-eredua sustatuko dut hezitzaile naizenean?

MODULUA	2. MODULUA (1867)			
Kalifikazioa	Bukaerako kalifikazioaren %30		Bukaerako kalifikazioaren %20	Bukaerako kalifikazioaren %50
	E1	E2	Azterketa teorikoa	Azterketa teoriko-praktikoa
JARDUERA	"Gizarte baztertzaitetik mundu inklusiboagora"	"Jolas inklusiboak"	Testa	Hausnarketa idatzia
AZALPENA	Gizarte baztertzaitetik definitzeko dauden kontzeptu desberdinak emango dizkiegu ikasleei. Kontzeptu horiek 3 multzo nagusitan bereizi beharko dituzte. Behin multzokatutakoan kontzeptu horiek kokatutako multzo horien barruan onerako edo txarrerako eragiten duten esan beharko dute.	Ikasleak taldeetan banatuko ditugu. Talde bakoitzean aniztasun funtzional ezberdina duen pertsona bat egong dela esango diegu. Taldeak, udalekuean egingo diren dinamika eta jolasak nola egoerara nola moldatuko lituzketen pentsatu beharko du.	1867 moduluan (Taldeprozesuetan jardutea, haurtzaroaren eta gaztaroaren portaera eta eboluzio ezaugarriak aintzat hartuta) landutako edukien araberakoa	"Gaur egun, euskaldun ona izatea, musulmana izatea, Ekuadorren jaioa izatea, euskaraz ez egitea edo abertzalea ez izatea bateragarri izan beharko lirateke. Hau da, inor ez litzateke bigarren mailako euskalduntzat hartu behar baldin eta inklusio soziala erdiestea nahi bada..." Ados zaude?

MODULUA	3. MODULUA (1868)				
Kalifikazioa	Bukaerako kalifikazioaren %30			Bukaerako kalifikazioaren %20	Bukaerako kalifikazioaren %50
	E1	E2	E3	Azterketa teorikoa	Azterketa teoriko-praktikoa
JARDUERA	"Auzolana jaialdi bibentziala"	"Baliabide materialak"	"Orientazioa"	Testa	Hausnarketa idatzia
AZALPENA	3 gune bereiziko ditugu, gune desberdinetan material desberdina utziko dugu. Auzolana jaialdiaren ezaugarriak kontuan hartuta, ikasleek gune bakoitzerako ekintzak prestatu beharko dituzte.	Egonaldian zehar material desberdinak izango ditugu, ikasleek ea baliabide materialak zaintzen dituzten eta ea horien erabilera nolakoa den erreparatuko dugu.	Egonaldian zehar, herrian zehar dinamika eta jolas desberdinak egingo dira. Ikasleen orientazioa nolakoa den erreparatuko da.	1868 moduluan (aisialdiko animazioko hezkuntzateknika eta baliabideak erabiltzea) landutako edukien araberakoa	Udalekutako azken egunean jaialdi bat antolatu behar duzu, 8-10 urteko 30 haurrentzako. Ikasleen artean, aniztasun funtzionala (gerritik beherako paralisia duenez gorpildun ahulki batean desplazatzen da) duen ikasle bat dago eta ikasleen arteko harremanetan lehiakortasuna gailentzen da

Hona hemen ebaluazio jarrairako erabiliko diren ebaluazio irizpideak:

lifikazioak / Item	KOMUNIKAZIOA - TALDE LANA - AUTONOMIA	EUSKARA	INGURUMENA
9-10	- Jardueraren bidez finkaturiko helburua bikain lortu du. - Ideiak, iritziak, azalpenak, ekarpenak... modu argi batean aurkezten ditu, besteenak arretaz entzuten eta kontutan hartzen ditu. - Iniziatiba hartzen du, aniztasunarekiko ikuspegi positiboa erakutsiz eta kooperazioa sustatuz. - Sormen gaitasuna erakusten du.	- Euskara eta Euskal Kulturarekiko begirunea eta konpromezua erakusten ditu. - Euskaraz bizi da eta kideak horrela bizi daitezen saiatzen da.	- Ekologia funtsezko balioztat du. - Ingurumenarekiko errespetua eta konpromezua erakusten ditu. - Zaborra birziklatzen du eta gainontzekoek ere egin dezatela sustatzen du.
7-8	- Jardueraren bidez finkaturiko helburua oso ongi lortu du. - Ideiak, iritziak, azalpenak, ekarpenak... ematen ditu eta besteenak entzuten ditu. - Jarrera parte-hartzailea eta baikorra erakusten ditu. - Egoera berri/ziurgabeetara egokitze gaitasuna du.	- Euskara eta Euskal Kulturarekiko jarrera positiboa erakusten du. - Euskaraz hitz egiten du eta ahozko esaldiak zein idatzizkoak modu argi eta ulerkorrean egiten ditu.	- Ekologia balio positibotzat du. - Ingurumenarekiko errespetua erakusten du. - Zaborra birziklatzen du.
5-6	- Jardueraren bidez finkaturiko helburua lortu du. - Ideiak, iritziak, azalpenak, ekarpenak... egiten eta besteenak entzuten saiatzen da. - Jarrera parte-hartzailea erakusten du. - Egoera berri/ziurgabeetara egokitzen saiatzen da.	- Euskara eta Euskal Kulturarekiko errespetuzko jarrera erakusten du. - Indarrak egiten ditu euskaraz mintzatzeko. - Kostatzen bazaio ere, saiatzen da bere ideiak besteei aurkezten eta ulertarazten.	- Ekologia balio bezala errespetatzen du. - Ingurumena errespetatzen saiatzen da. - Zaborra birziklatzeko ahaleginak egiten ditu.
1-4	- Jardueraren bidez finkaturiko helburua ez du lortu - Ideiak, iritziak, azalpenak, ekarpenak... ez ditu egiten eta besteenak ez ditu entzuten. - Jarrera pasiboa eta desinteresatua - Egoera berri/ziurgabeetan ezkortasuna erakusten du.	- Euskara eta Euskal Kulturarekiko mezpretxuzko jarrera erakusten du. - Ez du indarrak egiten euskaraz mintzatzeko. - Zailtasunak ditu esaldi osoak hitzez zein idatziz egiteko.	- Ekologia ez du balioztat onartzen. - Ingurumenarekiko mezpretxuzko jarrera erakusten du. - Ez du indarrak egiten zaborra birziklatzeko

10. FORMATZAILEA

Talde bakoitzak bere formatzailea izango du. Formatzaile hori izango da zati teorikoan zehar ikasleekin gaiak lantzeaz arduratuko dena. Formatzaileak ikastaroa hasi aurretik Aisiolaren prestakuntza espezifiko bat jasoko du ikastaroaren nondik norakoak ezagutzeko, edukien lanketa egiteko eta bere betebeharrak zeintzuk diren argitzeko.

Ikastaroak emango dituen formatzaileak profil bat, konpetentzia batzuk eta egin behar batzuk izango ditu.

Formatzaileraren **profila** honako hau izango da: Euskalduna, jendartearekin konprometitua, hartutako ardurak betetzen dituen, ikuspegi kritikoa jorratzen duena, gertuko harremana lehenesten duena, guztien parte-hartzailea eta elkarlana metodo bezala duena eta parekidetasuna, kulturartekotasuna eta inklusibitatea helburu dituen.

Profil horretaz gain **konpetentzia** hauek ere izan beharko ditu:

- Begirale ikastaroko programazioa ezagutzen duena
- Konpetentzia digitalak dituen
- Euskara eta euskal kulturarekin konprometitua
- Ingurugiroarekin sentsibilizatuta eta konprometituta dagoena
- Ikasketa saioak emateko gaitasuna duena
- Komunikatzeko gaitasuna duena, euskaraz eta gazteleraz, ahoz zein idatziz
- Harremanetarako gaitasuna duena
- Parekidetasuna, inklusibitatea eta kulturartekotasunarekin konprometitua dagoena
- Ekintzailea dena, hobekuntzak proposatzen dituen

Hemen formatzaileak ikastaroan zehar izango dituen **eginbeharrak**:

- Formatzaileen prestakuntzetara bertaratu
- Saioetan landu beharrekoa aurrez prestatu
- Saioak dinamizatu
- Saioen ondorengo dokumentazioa bete:
 - Asistentzia
 - Balorazio taulak
 - Ebaluazio jarraiko kalifikazio taulak

11. EGUTEGIA

Jarraian egutegia, 150 orduko atal teorikoa gauzatzeko kronograma. Egutegi honetan, lehen lerroan hilabeteak zehazten dira eta lehen zutabeen egunen zenbakiak. “L” eta “I” larunbata eta igandea dira. Kolorez markatuta dauden egunak izango dira saio egunak, lehen moduluko saioak berdez markatuta daude, bigarren moduluko saioak urdinez eta hirugarren moduluko saioak horiz. Ikastaroan zehar asteburu pasa bat egitea proposatzen da Allon (Nafarroan) dugun La Tahona aterpetxean. Irteera horren datak ez dira finkoak eta dagokion ikasturtearen hasieran, irailean, zehaztuko dira.

Egutegi proposamena

	2025 EKAINA	2025 UZTAILA	2025 ABUZTUA	2025 IRAILA	2025 URRIA	2025 AZAROA	2025 ABENDUA	2026 URTARRILA	2026 OTSAILA	2026 MARTXOA	2026 APIRILA	2026 MAIATZA	2026 EKAINA	2026 UZTAILA
1	I	5				L		Gabonetako oporrak	I	I	Aste Santua	Langileen eguna		
2		5	L			I						L		
3		5	I									I		
4		5			L						Pazko Astea			L
5		L			I									I
6		SAN FERMINAK		L			L						L	
7	L			I			I		L	L			I	
8	I					5			I	I				
9			L			I						5		
10			I					L				I		
11					5			I						L
12					I									I
13				5			L						L	
14	L			I			I		5	5			I	
15	I	5				L			I	I				
16		5	L			I						L		
17		5	I					5				I		
18		5			L			I			5			L
19		L			I						I			I
20		I		L									L	
21	L	5		I					L	L			I	
22	I	5				5			I	I				
23		5	L									L		
24		5	I					L				I		
25					5			I			L			L
26		L			I						I			I
27		I		5						5			L	
28	L			I					5	10			I	
29	I					L				10				
30			L			I					Aste Santua		L	
31			I					5				I		

5
10
10

Alloko aterpetxean asteburu pasa.
DATA EZ DA FINKOA

Behin atal teorikoa amaitutakoan 160 orduko praktikaldia egin beharko dute ikasleek.

12. IKASTAROAREN PREZIOA

Prezio honen barruan sartzen da ikastaroko zati teorikoaren (150h) eta zati praktikoaren (160h) kudeaketa. Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak ikasleen praktikak egiteko aisialdi taldearen bilaketan laguntza eskainiko die eta ondorengo kudeaketaz Aisiola elkarteak arduratuko da.

- Ikastaroaren prezioa = 430€/ikasleko

Orainketa Zirimolaren web orrian matrikulazioa egiterako momentua egingo da, tranferentzia bidez eta ordainketa hori Zirimolari (Ikastolen Elkarteko Aisialdi taldeari) egingo zaio.

13. TALDEA ATERATZEKO RATIO MINIMOA

Prestakuntza abiatu eta ikastaroa eman ahal izateko ikasle ratio minimoa 10 ikaslekoa da. Kopuru minimo hori ezean ez lirateke ikastaroa hasteko baldintzak bermatuko. Gehienez, aldiz, 25 ikasleko taldeak osatzen dira.